Bestelako Xedapenak

INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

2435

EBAZPENA, 2009ko martxoaren 25ekoa, Kontsumo eta Industria Segurtasuneko zuzendariarena; horren bitartez, Energia eta Meatzearen Garapen eta Aurrezkirako Zentroa, S.A. CADEM Instalazio Termikoen Ikuskatzailearen espezialitatean Baimendutako Profesionalak Prestatzeko Aitortutako erakunde gisa aitortzen da.

Espediente zk./Gaia: SEG/01609.nsa.

AURREKARIAK

Bat.– Industria, Energia eta Meategien Administrazioaren zuzendariaren 1995eko apirilaren 12ko ebazpenaren bitartez (1995-05-16ko EHAA), Energia eta Meatzearen Garapen eta Aurrezkirako Zentroa, S.A. CADEM Galdaren Industria Operadorearen espezialitatean baimendutako profesionalak prestatzeko aitortutako erakunde gisa aitortu zen. Erregistro-zenbakia: REFPA, A-0014.

Bi.– Kontsumo eta Industria Segurtasuneko zuzendariaren 2007ko irailaren 25eko ebazpenaren bitartez, CADEMen baimena berritu zen Baimendutako Profesionalak Prestatzeko Aitortutako Erakunde gisa.

Hiru.– Bizkaian 2008ko abenduaren 15ean, Gipuzkoan 2009ko otsailaren 6an eta Araban otsailaren 9an, CADEMen ordezkaritzak Instalazio Termikoetako Ikuskatzaileko Norbanakoaren Prestakuntzako Txartelaren espezialitatean Baimendutako Profesionalak Prestatzeko Aitortutako Erakundea izateko baimen-eskabidea aurkeztu zuen zegokion Lurralde Bulegoetan.

Lau.– Eskabide horrekin batera, industria-segurtasunaren alorrean norbanakoaren prestakuntzako txartela eta enpresa baimenduak arautzen dituen martxoaren 14ko 63/2006 Dekretuaren V. kapituluan aurreikusitako baldintzak eta betebeharrak bete dituela egiaztatzen duen dokumentazioa ere aurkeztu zuen. Zehazkiago, honako hauek aurkeztu zituen:

– Erakundea identifikatzeko datuak; erakunde horren egoitza helbide honetan dago: Urkixo zumarkalea, 36, 1. solairua, Bizkaiko Plaza Eraikina, 48011 Bilbao. Esperientzia profesionalen prestakuntzaren eta trebakuntzaren alorrean, baita garatutako zerbitzuei buruzko datuak ere.

– Dagozkion prestakuntza-ekintzak irakatsi ahal izateko erakundeak dituen giza baliabideen ezaugarrien deskribapena.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, COMERCIO Y TURISMO

2435

RESOLUCIÓN de 25 de marzo de 2009, del Director de Consumo y Seguridad Industrial, por la que se autoriza al Centro para el Ahorro y Desarrollo Energético y Minero, S.A. (CADEM), como Entidad Reconocida para la Formación de Profesionales Autorizados en la especialidad de Inspector de Instalaciones Térmicas.

N.º expediente/Asunto: SEG/01609.nsa.

ANTECEDENTES DE HECHO

Uno.– Por resolución de 12 de abril de 1995 (BOPV de 16-05-1995) de la Directora de Administración de Industria, Energía y Minas, se reconoció a Centro para el Ahorro y Desarrollo Energético y Minero, S.A. (CADEM, S.A.) como entidad reconocida para la formación de profesionales autorizados en la especialidad de Operador Industrial de Calderas, con el Numero de Registro: R.E.F.P.A. n.º A-0014.

Dos.– Por resolución de 25 de septiembre de 2007 del Director de Consumo y Seguridad Industrial se renovó la autorización del CADEM como Entidad Reconocida para la Formación de Profesionales Autorizados.

Tres.– Con fecha 15 de diciembre de 2008 en Bizkaia, 6 de febrero de 2009 en Gipuzkoa y 9 de febrero en Álava, la representación del CADEM presentó en las respectivas Oficinas Territoriales solicitud de autorización como Entidad Reconocida para la Formación de Profesionales Autorizados en la especialidad de: Carné de Cualificación Individual de Inspector de Instalaciones Térmicas.

Cuatro.– Junto con dicha solicitud se acompaña la documentación justificativa del cumplimiento de los requisitos y condiciones previstos en el Capítulo V del Decreto 63/2006, de 14 de marzo, por el que se regulan los carnés de cualificación individual y las empresas autorizadas en materia de seguridad industrial y, en particular:

– Datos de identificación de la Entidad, cuya sede se encuentra ubicada en c/ Alameda de Urquijo, 36, 1.ª planta - Edificio Plaza Bizkaia. 48011 Bilbao. Experiencia en materia de formación y capacitación profesional, así como los diversos servicios desarrollados.

– Descripción de los recursos humanos de que dispone para la impartición de las acciones formativas correspondientes.

– Instalazio Termikoen Ikuskatzailearen txartela lortzeko ikastaroa osatzen duten moduluen programa xehatua, gaiak eta iraupena aipatuz.

– Bizkaiko, Arabako eta Gipuzkoako Ingeniari Industrialen Elkargo Ofizialek, hurrenez hurren, emandako ziurtagiriak. Ziurtagiri horiek egiaztatuko dute CADEMi lokalak lagatzen zaizkiola prestakuntza-ikastaroak emateko Lurralde Historiko bakoitzean.

Bost.– Eskatzaileak aurkeztutako dokumentazioa aztertu ondoren, Bizkaiko, Gipuzkoako eta Arabako Lurralde Bulegoetako zerbitzu teknikoek ikuskatzebisitaldiak gauzatu zituzten eskatzaileak honako toki hauetan dituen instalazioetan:

– Bizkaiko Ingeniari Industrialen Elkargo Ofizialean. Mazarredo kalea, 69 - 4. - 48009 Bilbao.

– Gipuzkoako Ingeniari Industrialen Elkargo Ofizialean. Zubieta kalea, 38 - 20018 Donostia-San Sebastián.

– Arabako Ingeniari Industrialen Elkargo Ofizialean. Bizkaia kalea, 2 - 01006 Vitoria-Gasteiz.

Sei.– 2009ko otsailaren 9an, 25ean eta 26an, Bizkaiko, Arabako eta Gipuzkoako Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren Lurralde Bulegoetako buruek, hurrenez hurren, aldeko txostenak eman zituzten CADEM, S.A. zentroak aitortutako erakunde izateko baimena eskatzeko egindako eskabideari dagokionez.

Espediente horri ebazpena emateko, honako hauek kontuan hartu eta horiei buruzko aipamena egin beharko da.

OINARRI JURIDIKOAK

Bat.– Kontsumo eta Industria Segurtasuneko Zuzendaritzari dagokio ebazpen hau ematea, Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren Egitura Organikoa eta Funtzionala ezartzen duen urriaren 11ko 284/2005 Dekretuaren 20. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz.

Bi.– Industria-segurtasunaren alorrean norbanakoaren prestakuntzako txartelak eta enpresa baimenduak arautzen dituen martxoaren 14ko 63/2006 Dekretuan ezarritakoaren arabera izapidetu da espediente hau. Instalazio Termikoen Ikuskatzailearen espezialitatea Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuaren 2008ko uztailaren 22ko Aginduaren -Eraikinetako Instalazio Termikoen Erregelamendua (EIT) garatzen duenabitartez eman da. Agindu horren 1. azken xedapenean Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuaren 2006ko apirilaren 10eko Aginduan -63/2006 Dekretua garatzen duena- dagoeneko bilduta zeudenei eransten zaio espezialitate hori.

Hiru.– Halaber, CADEM, S.A. dekretu horren 22. artikuluaren 1. puntuaren c) idatz-zatian jasotako kasuaren barruan sartzen dela egiaztatuta geratu da, eta

– Programa detallado, con temario y duración, de los distintos módulos que componen el curso para la obtención del carné de Inspector de Instalaciones Térmicas.

– Certificados expedidos respectivamente por los Colegios Oficiales de Ingenieros Industriales de Bizkaia, Álava y Gipuzkoa, que acreditan la cesión de locales al CADEM para la impartición de cursos de formación en cada Territorio Histórico.

Cinco.– Tras el análisis de la documentación presentada, por parte de los servicios técnicos de las Oficinas Territoriales de Bizkaia, Gipuzkoa y Álava, se giró visita de inspección a las instalaciones de la solicitante ubicadas en los siguientes lugares:

– Colegio Oficial de Ingenieros Industriales de Bizkaia. C/ Mazarredo, 69 - 4.º. 48009 Bilbao.

– Colegio Oficial de Ingenieros Industriales de Gipuzkoa. C/ Zubieta, 38 - 20018 Donostia-San Sebastián.

– Colegio Oficial de Ingenieros Industriales de Álava. C/ Bizkaia, 2 - 01006 Vitoria-Gasteiz.

Seis.– En las fechas del 9, 25 y 26 de febrero de 2009, los respectivos Jefes de las Oficinas Territoriales del Departamento de Industria, Comercio y Turismo en Bizkaia, Álava y Gipuzkoa emitieron sendos informes favorables a la autorización como entidad reconocida en relación con la solicitud de CADEM, S.A.

En la resolución del expediente es necesario tener en cuenta y hacer referencia a los siguientes,

FUNDAMENTOS JURÍDICOS

Uno.– La Dirección de Consumo y Seguridad Industrial es el órgano competente para la adopción de la presente Resolución de conformidad con lo establecido en el artículo 20 del Decreto 284/2005, de 11 de octubre, por el que se establece la Estructura Orgánica y Funcional del Departamento de Industria, Comercio y Turismo.

Dos.– La tramitación del expediente se ha efectuado de acuerdo con lo establecido en el Decreto 63/2006, de 14 de marzo, por el que se regulan los carnés de cualificación individual y las empresas autorizadas en materia de seguridad industrial. La especialidad de Inspector de Instalaciones Térmicas ha sido aportada por la Orden de 22 de julio de 2008, de la Consejera de Industria, Comercio y Turismo, que desarrolla el Reglamento de Instalaciones Térmicas en Edificios (RITE), la cual en su Disposición Final 1.ª añade esta especialidad a las ya contenidas en la Orden de 10 de abril de 2006, de la Consejera de industria, Comercio y Turismo por la que se desarrolla el Decreto 63/2006.

Tres.– Así mismo, queda acreditado que CADEM, S.A. entra en el supuesto recogido en el apartado c) del punto 1 del artículo 22 del citado Decreto, situándose

erakunde horrek dituen instalazioak Lurralde Historiko bakoitzeko Ingeniari Industrialen Elkargo Ofizialen egoitzetan kokatzen dira.

Lau.– Martxoaren 14ko 63/2006 Dekretuaren 25. artikuluan ezarritakoari jarraiki, beharrezko egiaztapen-dokumentazioa aurkeztu du erakunde eskatzaileak.

Aipatu diren lege-xedapenak eta oro har aplikagarriak izan eta horiekin bat datozen gainerako arauak aztertuta, honako hau

EBATZI DUT:

Bat.– Bilboko CADEM, S.A. erakundea honako espezialitate honetan Baimendutako Profesionalak Prestatzeko Aitortutako Erakundetzat aitortzea:

– Instalazio Termikoetako Ikuskatzaileko norbanakoaren prestakuntzako txartela.

Bi.– Erabaki hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadila agintzea.

Hiru.– Erakunde horri baimena eman zaio dagozkion ikastaroak emateko egiaztatutako instalazioetan. Ikastaroak beste instalazio batzuetan eman nahi baditu, nahitaezko baimena eskatu beharko du eskumeneko Lurralde Bulegoan; nolanahi ere, instalazio horiek martxoaren 14ko 63/2006 Dekretuaren 22. artikuluan aurreikusitako gutxieneko baldintzak betetzen dituztela egiaztatu beharko du ezinbestean.

Lau.– Aitortutako erakunde orok bete beharko ditu legezko xedapenek eta arautegi-xedapenek ezartzen dituzten aplikatzeko betebeharrak; bereziki, martxoaren 14ko 63/2006 Dekretuaren V. kapituluan aurreikusitakoak.

Bost.– Aitortutako erakundeek galdu egingo dute Aitortutako Erakundeen kalifikazioa, baldin eta bete gabe uzten badituzte adierazitako dekretuan xedatutako betebeharrak eta konpromisoak edo aplikatu behar diren bestelako arauak.

Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa jar daiteke Merkataritza, Kontsumo eta Industria Segurtasuneko Sailburuordetzan, hilabeteko epean, ebazpen honen jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 107. artikuluak eta ondorengoek ezartzen dutenaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko martxoaren 25a.

Kontsumo eta Industria Segurtasuneko zuzendaria,
RUBEN MENDIOLA ERKOREKA.

las instalaciones con las que cuenta en las sedes de los Colegios Oficiales de Ingenieros Industriales de cada uno de los Territorios Históricos.

Cuatro.– En cumplimiento de lo establecido en el artículo 25 del citado Decreto 63/2006, de 14 de marzo, se ha presentado, por parte de la entidad solicitante, la documentación suficiente acreditativa.

Vistos los preceptos legales citados y otros de general y concordante aplicación,

RESUELVO:

Uno.– Reconocer a la entidad CADEM, S.A. de Bilbao, como Entidad Reconocida para la Formación de Profesionales Autorizados en la especialidad de:

– Carné de cualificación individual para Inspector de Instalaciones Térmicas.

Dos.– Ordenar la publicación de la presente Resolución en el Boletín Oficial del País Vasco.

Tres.– Esta Entidad está autorizada para impartir los correspondientes cursos en las instalaciones acreditadas. Para impartir cursos en Instalaciones diferentes deberá solicitar la preceptiva autorización de la Oficina Territorial competente, debiendo acreditar, en todo caso, que dichas instalaciones reúnen las condiciones mínimas previstas en el artículo 22, del Decreto 63/2006, de 14 de marzo.

Cuatro.– Toda Entidad reconocida deberá cumplir con las obligaciones impuestas en las disposiciones legales y reglamentarias que sean de aplicación y en particular las obligaciones previstas en el Capítulo V del Decreto 63/2006, de 14 de marzo.

Cinco.– El incumplimiento por las Entidades Reconocidas de las obligaciones y compromisos que resulten de lo dispuesto en el referido Decreto, y demás normas que resulten de aplicación, determinará la pérdida de la calificación de Entidad Reconocida.

Contra la presente resolución se podrá interponer recurso de alzada ante el Viceconsejero de Comercio, Consumo y Seguridad Industrial en el plazo de un mes contado desde su notificación, en virtud de lo establecido en los artículos 107 y siguientes de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

En Vitoria-Gasteiz, a 25 de marzo de 2009.

El Director de Consumo y Seguridad Industrial,
RUBEN MENDIOLA ERKOREKA.